

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**IRUNGO UDALA****Hirigintza eta Garapen Iraunkorreko Arloa***Iragarkia*

2021eko urriaren 4an, 1085 zenbakiko Ebazpena eman du Alkatetza-Lehendakariak:

«1. Hasieran onestea 1.1.12 Araso Sasikoburua eremuko Egikaritze Unitatea Urbanizatzeko Proiektua ingurumen-inpaktuaren azterlanarekin batera, ebazpen honi atxikitako I. eta II. eranskinetan agertzen diren baldintzak betez.

2. 1.1.12 Araso Sasikoburua eremuko Egikaritze Unitatea Urbanizatzeko Proiektua eta Ingurumen Inpaktuaren Azterlana jendaurrean jartzea hogeita hamar egun baliodunetan, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Lurralde Historikoan gehien zabaltzen den egunkarian eta Udalaren egoitza elektronikokoan argitaratuta.

Jendaurrean jartzeko hasierako iragarkian, proiektua baimentzeko prozeduraren laborpen bat sartuko da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritakoa.

3. Proiektuak izan ditzakeen ondorio garrantzitsuei buruzko kontsulta egitea ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, eta, lege-testu beraren 37.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritakoa, gehienez ere hogeita hamar egun balioduneko epea izango dute, jakinarazpena jasotzen denetik hasita, egoki irizitako alegazioak aurkezteko.

Halaber, aipatutako legearen 37.2 artikuluan aurreikusitako aginduzko txostenak eskatzea, epe horretan eman daitezkeen.

4. Bidezko diren gainerako txosten sektorialak eskatzea.»

Eta hau argitaratzen da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 196.2. artikuluan eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Halaber, proiektua baimentzeko prozeduraren laborpen bat argitaratzen da, honako informazio hau duena gutxienez, lege-testu beraren 36.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritakoa:

a) Proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta behar du.

b) Proiektua baimentzeko organo eskuduna Irungo Udaleko Alkate-Lehendakariak da. Organo horren aurrean alegazioak aurkeztu ahal izango dira, gehienez ere hogeita hamar egun balioduneko epean. Espedientearen informazioa, berriz, Hirigintza eta Garapen Jasangarriaren Arloko Zuzendaritzan eskuratu ahal izango da.

Irun, 2021eko urriaren 19a.—Alkatea, eskuordetuta, Hirigintzako teknikaria. (6796)

**AYUNTAMIENTO DE IRUN****Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible***Anuncio*

Con fecha 4 de octubre de 2021 por la Alcaldía Presidencia se ha dictado la Resolución n.º 1085:

«1.º Aprobar inicialmente el Proyecto de Urbanización de la Unidad de ejecución del ámbito 1.1.12 Araso Sasikoburua junto con el Estudio de Impacto Ambiental, con sujeción a las condiciones que figuran en anexo I y II adjuntos a la presente Resolución.

2.º Someter a información pública el Proyecto de Urbanización y el Estudio de Impacto Ambiental de la Unidad de ejecución del ámbito 1.1.12 Araso Sasikoburua durante un plazo de treinta días hábiles mediante anuncio en BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, diario de mayor circulación del Territorio histórico y en la sede electrónica municipal.

En el anuncio del inicio de la información pública, se incluirá un resumen del procedimiento de autorización del proyecto, conforme lo dispuesto en el artículo 36 Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental.

3.º Consultar a las Administraciones Públicas afectadas y a las personas interesadas sobre los posibles efectos significativos del proyecto de conformidad con lo dispuesto en el artículo 37.1 del mismo texto legal que dispondrán de un plazo máximo de treinta días hábiles desde la recepción de la notificación para formular las alegaciones que estimen pertinentes.

Asimismo solicitar con carácter preceptivo los informes previstos en el artículo 37.2 de la citada Ley para su emisión durante el mencionado plazo.

4.º Solicitar el resto de informes sectoriales que sean procedentes.»

Lo que se publica en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 196.2. de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo y artículo 36 de la Ley 21 /2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental.

Se publica asimismo un resumen del procedimiento de autorización del proyecto, que contiene, como mínimo, la siguiente información, según lo dispuesto en el artículo 36.2 del mismo texto legal:

a) El proyecto está sujeto a evaluación de impacto ambiental ordinaria.

b) El órgano competente para autorizar el proyecto es la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Irun ante cuyo órgano podrán presentarse las oportunas alegaciones en el plazo máximo de treinta días hábiles, pudiendo obtenerse información del expediente en la Dirección del Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible.

Irun, a 19 de octubre de 2021.—El alcalde, p.d., la técnico de Urbanismo. (6796)

I. ERANSKINA

Honako hauek jaso beharko ditu dokumentuak:

1. Dokumentazio grafiko bat, zehaztasun kartografikoarekin. Zehaztasun kartografiko horretan, bat etorriko dira definizio-maila eta eskala, eta puntu berezietan obraren xehetasunak ezagutu ahal izango dira, eta horrez gain, edozein kota edo erreferentzia neurtu, egiaztatu edo estrapolatu ahal izango da. Le-traren tamainak aukera eman behar du lehen begiratuan erraz irakurtzeko, eta behar adina plano egingo dira horretarako.

2. 4. eranskinean, eskala handiagoko plano bat eta definizio kartografikoa (gutxienez 1:500), eta partzelak gainjarrita, eremuaren kanpoaldean aldi baterako okupazioak ukitutako azalera egiaztatu ahal izateko.

3. Bide-segurtasunari, funtzionamenduari eta/edo sartzeei buruzko azterketa ataurreko sarreran eta irteeran, ibilgailu arin eta astunen artean, zirkulazio-trazadura. Hori esanda, eta oinezkoen bide-segurtasunagatik, ez da zebra-biderik jarriko aturren parean.

4. Proposatutako zuhaitzen kopuruari eta espezieari buruzko beste proposamen bat, lurzoru erabilgarriaren azalera kontuan hartuta landatzeko. Era berean, kontuan hartu beharko da zenbaterainoko altuera eta adaburua izan dezaketen landa-tzen direnetik 10-15 urtera.

Horrela, besteak beste, Irungo udalerriko berdegune eta zuhaitz-eremuen plan zuzentzailean xedatutakoa beteko du. 2009/11/25ean onetsi zen plan hori.

<https://www.irun.org/es/obras/1414-plan-director-de-las-zonas-verdes-y-arbolado-del-municipio-de-iruñidob=88>.

II. ERANSKINA

– Hobetu egin behar da dokumentazioaren aurkezpen grafikoa, ikusteko eta identifikatzeko erraza izan dadin. Dokumentuaren gainerako zatian, atal bakoitza bereiztekoak eta indizeak jarri behar dira, kontsultatu nahi den dokumentazio-zatia errazago aurkitzeko.

– Aurrekontuan jaso bai, baina ez dira definitzen banaketa-elementuak, arroka meteorizatuan hondeaketak egiteko gunita eta hormigoizko dadoak arroka sanoan. Haien definizioa osatzeko, planoetan azaldu behar dira haien neurriak eta xehetasunak.

– Xehetasun handiagoz aztertu behar dira zer hondeaketa eta euste behar diren 7. hormaren eta hondeaketa-eremuaren arteko elkargunean (ainguraketen bidez), eta justifikatu egin behar da 7. horma egiteko hondeaketak ez duela ukituko orain dagoen landa-bidea.

– 4. eranskinean, lurra aldi baterako okupatzeari buruzkoan, planoan irudikatu behar da partzela-zatiketa, okupatzen diren lurra norenak diren adieraziz, eta koadro bat ere egin behar da, aldi baterako okupazio bakoitza metro karratuetan kuantifikatuta.

– 3. horma berdea 4. hormigoizko hormaren kontra itxi behar da.

– 7. horma tipologia desberdineko horma da, urbanizazioko hormigoizko gainerako hormekin alderatuta. L formako horma bat da, puntaduna baina takoirik ez duena. Zuzendu egin behar dira 7. hormaren sekzio-mota eta eraikuntza-xehetasunak. Gainera, 7. hormarako kalkuluekin osatu behar da kalkuluen eranskina.

– Kasu batzuetan, altxaeretan adierazitako hormen altuerak altuagoak dira kalkuluen eranskinean (6. eranskina: hormigoien hormak) kalkulaturako eredu-hormen altuerak baino. Zuzendu egin behar da kalkuluen eranskina, altxaeretan adierazitako hormen altuerak barne hartuz.

– 4. motako horma-sekzioa desberdina da planoetan eta kalkuluen eranskinean. Zuzendu egin behar da kalkuluen eranskineko 4. Motako sekzioa, planoetan jasotakoarekin bat etortzeko.

ANEXO I

El Documento deberá contemplar:

1. Una documentación gráfica con una precisión cartográfica en la que concuerde el grado de definición con la escala y en la que sea posible, no sólo conocer el detalle de la obra en los puntos singulares, sino además, medir, comprobar o extrapolar cualquier cota o referencia. El tamaño de la letra será el suficiente para una fácil lectura a primera vista y se elaborarán tantos planos como sean precisos.

2. En el anexo 4. Un plano a mayor escala y definición cartográfica (al menos 1:500) y con superposición del parcelario para poder comprobar la superficie afectada por ocupación temporal en el exterior del ámbito.

3. Un análisis sobre la seguridad viaria, funcionamiento y/o intromisiones en el traza rodada entre vehículos ligeros y pesados en la entrada y salida a las antepuertas. Dicho lo cual, y por seguridad viaria de peatones, no se habilitarán pasos de cebrera enfrente de las antepuertas.

4. Una nueva propuesta sobre el número y especie de los árboles propuestos, a fin de contemplar una plantación ajustada a la superficie de suelo disponible y tener en cuenta la altura y copa de su mayor potencial posible, una vez pasados 10-15 años desde que fueron plantados.

De ese modo, cumplirá entre otras cosas, con lo dispuesto en el Plan Director de las zonas verdes y arbolado de Irun, aprobado el 25/11/2009.

<https://www.irun.org/es/obras/1414-plan-director-de-las-zonas-verdes-y-arbolado-del-municipio-de-iruñidob=88>.

ANEXO II

– Se debe mejorar la presentación gráfica de la documentación para que resulte visual y fácil de identificar. En el resto del documento se deben disponer de separadores e índices de cada apartado que faciliten localizar la parte de documentación que se desea consultar.

– Los elementos de reparto, gunita para excavaciones en roca meteorizada y dados de hormigón en roca sana, se contemplan en el presupuesto pero no llegan a definirse. Se debe completar su definición con su dimensionamiento y detalles en planos.

– Se debe estudiar con mayor detalle la excavación y sostenimiento necesarios en la zona de encuentro del muro 7 con la zona de excavación con anclajes, y justificar que con la excavación para ejecutar el muro 7 no llega a afectarse el camino rural existente.

– En el anejo 4, ocupación temporal de terrenos, se debe presentar en el plano, el parcelario, identificando de quien son los terrenos que se ocupan y un cuadro con la cuantificación en metros cuadrados de cada ocupación temporal.

– El Muro Verde 3 debe cerrarse contra el muro de hormigón 4.

– El muro 7 es un muro de tipología distinta al resto de muros de hormigón de la urbanización. Se trata de un muro en L que dispone de puntera pero no tiene tacón. Se debe corregir sección tipo y detalles constructivos del muro 7. Además el anejo de cálculos se debe completar con los cálculos para el muro 7.

– En algunos casos las alturas de muro señaladas en los alzados, son superiores a las alturas de los muros tipo calculados en el anejo de cálculos, anejo n.º 6: Muros del hormigón. Se debe corregir el anejo de cálculos abarcando las alturas de muro señaladas en los alzados.

– La sección Tipo 4 de muro es distinta en planos y en el anejo de cálculos. Se debe corregir la sección Tipo 4 del anejo de cálculos para que coincida con la recogida en planos.

– 7. eranskinean (Zubia): erabilitako kalkulu-programaren kostean batzuk gehitu dira, baina zeri dagokion identifikatu gabe, eta horrek oso zaila egiten du horiek interpretatzea. Kalkulu eranskina ordenatuta aurkeztu beharko da, eta argi eta garbi identifikatu ahal izango dira kontuan hartutako kalkulekintzak eta zubiaren elementu bakoitzerako lortutako kalkulu-datuak.

– Zuzendu egin behar dira zubiaren zenbait elementutan neurriei buruz dauden kontraesan batzuk. Kontraesana dago estriboetako zapaten dimentsioetan, kalkulu eranskinean eta planoetan desberdin agertzen baita. Eta U-28 planoan, kontraesana dago zubiaren habeen zabaleraren akotazioan. Zenbait xehetasunetan, 0,50 m-ko habe-zabalera adierazten da, eta, beste batean, 0,40 m-koa da zabalera akotatua.

– Nahiz eta oinplanoko kurbadura-erradioak jada adierazten diren aurkeztutako bideen luzetarako profiletan, oinplanoan ere adierazi behar dira, errazago identifikatzeko.

– Dokumentu berrian, handitu egin da industrialdera sartzeko bidearen malda (5. ardatza). Aurreko plangintza-dokumentuetan % 6koa finkatzen zen, eta orain erregistratu den dokumentuan, berriz, % 8koa. Gehienez ere % 6ko malda ezarri zen ibilgailu astunek sartzeko zailtasunik izan ez zezaten eta zoladurak higatu eta irauarazteko arazorik izan ez zedin, eta horrela mantendu behar da, izan ere, horrela ez dago aldatu beharrik bidearen ondoko espaloien ibilbidea, eta sarbideari lotutako trazadura logikoa mantentzen da.

– Luzetarako ardatzak, bai goiko bidekoak, bai behekoak, malda txiki batekin proiektatzen dira, euri-urak hustubideetara behar bezala husten direla ziurtatzeko; beraz, ez da beharrezkotzat jotzen sakanguneak malda osagarritz hornitzea. Horri buruzko xehetasuna kendu behar da U-12.1 planotik.

– Zirkulazioari buruzko azterlanean, arrazoitu egin behar da biribilgunearen irtenbideak behar bezala funtzionatzen duela eta ez duela ahalmen-arazorik.

– Zirkulazioari buruzko azterlanaren eranskinean, biribilgunean ibilgailu astunek egin ditzaketen maniobretarako ibilgailu-patroiarekin ekortutako eremuaren egiaztapena jaso behar da. Hori proiektuaren planoetan jasota dago jada.

– Behar bezala kalkulatu eta justifikatu behar da proiektu-eremuak (PT) kalkulatzeko egunero hartu behar den ibilgailu astunen balioa, datu hori oinarria baita bide-zoruen neurriak ezartzeko.

– Proiektuak xehetasun handiagoz definitu behar ditu urbanizazioko lorategi-eremuak, harizti-landaketen eremu seinaltatuak.

– PVCzko 250 mm-ko saneamenduko hoditeriaren partidan, hodia oinarritzeko eta biribiltzeko hormigoia eta estaltzeko harrea edo hormigoia sartu behar dira, segun zer dagokion.

– NW eremuan dagoen hornidura-sarerako lotura andelean egin behar da (planoetan behar bezala adierazi).

– Argiteriarako kablearen sekzioak gutxienez 4 x 6 mm<sup>2</sup>-koa izan behar du.

– Argiztapenaren kapituluaren, lur-konexioko kableatuaren (1 x 16 mm<sup>2</sup>-ko gutxieneko sekzioa) eta piken partidak falta dira.

– Energia elektrikoa banatzeko proiektatutako sarean hargune-kutxeta bat jarriko da bi pabiloi bakoitzeko.

– Energia elektrikoaren kapituluaren aurrekontuan, pabiloiak hornitzeko behe-tentsioko kableak sartu behar dira.

– Zehatzago zehaztu behar dira telefonian egin beharreko desbideratze-lanak eta horien zenbatekoa.

– En el anejo n.º 7: Puente, se han incorporado algunos informes del programa de cálculo utilizado, pero sin identificar a que corresponden, lo que hace muy difícil su interpretación. El anejo de cálculo se deberá presentar ordenado, pudiendo identificarse claramente, las acciones de cálculo consideradas, y los datos de cálculo obtenidos para cada elemento del puente.

– Se deben corregir algunas contradicciones, que se observan sobre sus dimensiones, en algunos elementos del puente. Se observa contradicción en las dimensiones de las zapatas de los estribos, entre lo que se recoge en anejo de cálculos y los planos. Y en el plano U-28, hay contradicción en la acotación de la anchura de las vigas del puente. En algunos detalles se señala anchura de viga de 0,50 m y en otro la anchura acotada es de 0,40 m.

– Aunque los radios de curvatura en planta ya se señalan en los perfiles longitudinales de los viales presentados, se deben señalar también en planta para facilitar su identificación.

– En el nuevo documento se ha incrementado la pendiente en el vial de acceso al polígono (eje 5) pasando de un 6 %, que se fijaba en anteriores documentos de planeamiento al 8 % que se fija en el documento que ahora se ha registrado. La pendiente máxima del 6 % se estableció para evitar dificultades de acceso de vehículos pesados y problemas de desgaste y durabilidad de los pavimentos y se considera se debe mantener, de esta forma además, no resulta necesario modificar el recorrido de la acera contigua al vial, manteniendo su trazado lógico vinculado al vial de acceso.

– Los ejes longitudinales tanto del vial superior como del inferior se proyectan con ligera pendiente para asegurar una adecuada evacuación de las aguas pluviales hacia los sumideros, por lo que no se considera necesario dotar de pendiente suplementaria a los badenes. Se debe eliminar detalle del plano U-12.1 al respecto.

– Se debe incluir en el estudio de tráfico justificación de cómo se llega a la afirmación de que la solución en forma de rotonda funciona adecuadamente, y que en ningún momento presenta problemas de capacidad.

– Se debe incluir en el anejo de estudio de tráfico, la comprobación del área barrida con el vehículo patrón para las maniobras probables de vehículos pesados en la glorieta, que ya se recoge en los planos del proyecto.

– Se debe estimar y justificar adecuadamente el valor de vehículos pesados diarios que se debe adoptar para el cálculo del tráfico de proyecto (TP), dato que sirve de base para el dimensionamiento de los firmes.

– El proyecto debe definir con más detalle las zonas ajardinadas de la urbanización, zonas señaladas de plantaciones de robleal.

– Se debe incluir hormigón para base y enriñonamiento de tubería, y arena u hormigón para la cubrición, según el caso, en la partida de tubería de saneamiento de PVC 250 mm.

– La conexión a la red de abastecimiento existente en la zona NW, se debe realizar en el depósito (reflejar correctamente en planos).

– La sección de cable para alumbrado debe ser de al menos 4 x 6 mm<sup>2</sup>.

– En el capítulo de alumbrado faltan partidas de cableado de puesta a tierra (sección mínima 1 x 16 mm<sup>2</sup>) y picas.

– En red proyectada de distribución de energía eléctrica se instalará una arqueta de acometida para cada dos pabellones.

– El presupuesto del capítulo de energía eléctrica se debe contemplar el cableado de baja tensión para dar suministro a los pabellones.

– Se deben definir de manera más concreta los trabajos de desvíos telefonía a realizar y su importe.